

**ESTA  
CXSA**



**NO SE  
HABITA...**

**/X HAU  
EZ DA**

**OKUPATZEN...**







Uho  
lde ak

ESTA CXSA  
**NO SE** HABITA...  
/X HAU EZ  
**DA** OKUPATZEN...



Ione Atenea  
Aizpea de Atxa  
Celia Eslava  
Andrea Ganuza  
Mireya Martín Larumbe

Ibil Bedi  
Sutan dantza taldea  
Artafarándula

## **EUS**

Uholdeak Uharteko Arte Garaikideko Zentroak, Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Gizarte-ekin-tzako "la Caixa"-k bultzatutako programa da. Erakusketa-proiektua ibiltaria da, eta Nafarroari lotutako artistek egindako ekoizpenek osatzen dute, eta horrek lurraldeko espazio periferikoetan ekoizpen garaikideak ikusaraztea bultzatzen du. Hirugarren edizio honetan, Agoitzen, Altsasun eta Tafallan ikusi ahal izanen da eta Jone Rubio Mazkianek egindako ikerketa bat da proiektuaren ardatza. Hiru esparru teorikoren gainean eraikia dago: imaginario feministak, espazioa eta gorpuztasuna.

Ione Atenea, Aizpea de Atxa, Celia Eslava, Andrea Ganuza eta Mireya Martín Larumbe artista plastikoen lanak biltzen dira, Ibil Bedi, Sutan dantza taldea eta Artafarandula arte eszenikoetako taldeen lanekin batera. Erakusketan dauden ekoizpen artistikoak antzeko oinarri teorikoen gainean eraiki arren, diziplina-ezaugarriei dagokienez desberdinak dira: eskultura, instalazioa, marrazketa, dantza, zinema, bertsolaritza, literatura, musika...

## ES

Uholdeak es un programa curatorial y expositivo, impulsado por el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte, Fundación Caja Navarra y Obra social "la Caixa". El proyecto expositivo es itinerante y se compone de producciones realizadas por artistas vinculadas a Navarra, lo cual impulsa la visibilización de producciones contemporáneas en espacios periféricos del territorio.

En esta tercera edición, con sedes en Aoiz, Alsasua y Tafalla, el proyecto gira en torno a una investigación curatorial realizada por Jone Rubio Mazkieran que se erige sobre tres marcos teóricos: imaginarios feministas, espacio y corporeidad.

Estos aglutinan los trabajos de las artistas plásticas participantes Ione Atenea, Aizpea de Atxa, Celia Eslava, Andrea Ganuza y Mireya Martín Larumbe, junto con el de las artistas escénicas Ibil Bedi, Sutan dantza taldea y Artafarándula. Si bien las producciones artísticas presentes en la muestra se erigen sobre bases teóricas similares, difieren en lo que se refiere a características disciplinares: escultura, instalación, dibujo, danza, cine, bersolarismo, literatura, música...

**JONE RUBIO MAZKIARAN**



## ARTEFAKTUAK

... oroitzapena da, objektu bat, afektu baten atzamarka. Objektu batean kristaldutako esperientzia bat da, izaten jarraitzeko izateari utzi ziona. Espazio bat okupatu ahal dugu, hura bizitu gabe?

Espazioa trantsizio gune bezala erabiltzean, zer lotura mota sortzen da haren eta gure gorputzaren artean? Zein da espazio bat bizitzearen oinarria?

Gaiari buruzko informazioa bilatzen hasten naiz, modu konpultsiboan, nolabaiteko obsesioa sortu baitzait haren inguruan. Eta, orduan Angélica Cresporen *Ontología del habitar* testua aurkitzen dut, hurrengoa erantzuten didalarik: "Espazio bat okupatzeko ahalmena zuzenean lotuta dago 'haragia' gorputz bizi bezala ulertzearekin (...) Gorputzak berak dei egiten digu zentzumenen gertaera irekita eta adi egotera. Gauzetatik beren testurak, koloreak, formak, usainak jaso ahal izateko; eta beren esperientziaren zentzuarekin, espazioa eta gure gorputzen artean sortzen den gauzatze hura 'osatu' ahal izateko".

Hura, esperientzia bihurtzen dela ondorioztatzen dut. Donna Harawayk, esperientziak ezagutza objektu gisa mugitzen direla dio, alegia, ekintzarako objektuak direla. Esperientziak memoria bihurtzen dira, eta memoria objektu, emozio, mugimendu, izan zenaren erregistroa. Irudikatzen gaituen, baina irudikatzen ez den, alegia, irudikatu ez denaren erregistroa. Disidentzia baten erregistroa? Leku bat, etxe bat, espazio bat, gorputz bat atzean utzi eta lekua, etxea, espazioa, gorputza, afektua sortu zutenen erregistroa.

X hau dimentsio afektiboa da, nolabait, oroimen indibiduala eta, aldi berean, kolektiboak erakartzeko saiakera egiten duena. Espazio hau topagunea izatea gustatuko litzaidake, partekatutako emozioen berreraikitze kognitiboan eragina izango lukeen sentimendu partekatua; edo ez. Baina bai gogoeta, bilaketa eta topaketa batean, ulermenera, afektura, enpatiara eramango gintuena.

Berriz ere, erantzunen bilaketan murgilduta, Sara Ahmeden *La política cultural de las emociones* liburua irekitzen dut.

Eta hurrengoa esaten dit: "Elkartasunak ez du esan nahi gure

## Esta cxxa no se habita.../X hau ez da okupatzen...

borrokak berdinak direnik; horregatik dira beharrezkoak konpromisoa eta lana. Sentimendu berak, bizitza berak edo gorputz berdinak izan ez arren, testuinguru amankomun batean bizi garela onartzea.”

Eta, orduan, ulertzen dut X hau ez dela espazio neutroa. Neutraltasuna erosotasuna baita. X hau ez da eroso, gogoeta, posizionamendua, mugimendua eskatzen duelako. Izan ere, X hau testuinguru jakin batean kokatzen da, bere historia, oroitzapenak, objektuak, gorputzak eta memoriak barne. Horietako batzuek orain arte zer gertatu den hausnartzera gonbidatzen gaituzte. Eta, era berean, testigantza isilduak, ahotsik gabeak, mugimendu gabeak, non dauden edota zergatik ez dauden galdetzera eramaten gaitu X deseroso honek.

Gloria Anzaldúaren *Tiranía Cultural* testuan oinarrituta, bere hitzak birmoldatu eta, isildutako soinu horien bakardadean geure errebeldia loratzen dela ondorioztatzen dut<sup>1</sup>.

Inor bizi ez den espazio hau artisten mugimenduaren erregistro bihurtzen da, euren gorputza adierazpen artistikoetan kristaltzen baita. Celiaren piezak zeharkatuko dituzuen momentuan gorputzek euren mugimendua bizituko dute. Mireya trazuak begi ninietatik barneratuko zaizkizuen. Iragan hurbilean gure gorputzek okupatu zituzten aulkietan eseri, eta Aizpeak botatzen dizkizuen gogoeten erantzunak bilatzeari ekiten diozuen. Zuen gorputzak Andrearen kartelen parean jartzean kitzikatuko dira guztiz. Eta, loneren instalazioan murgiltzen zareten momentuan, testuinguru zein momentu zailetan pitzadurak, zirrikituak sortu ahal ditugula ikusi eta sentituko duzue.

Halaber, espazioaren mugimendua Idoiak, Iratik, Alaznek eta Saraik eraldatuko dute. Bisitari gisa barneratuko dira erakusketa espazioan, eta beren bertsoen berehalakotasunaz esperientziak azalartuko dituzte. Uxue Alberdik *Kontrako eztarritik* liburuan esaten duenez, “bertsolaria gorputza da, eta gorputza du bere lehen talaia”. Ez dira X honi lotutako talaia bakarrak, baina bai barnean egongo direnak. Artista eszenikoen gorputzek erakusketa aretotik ihes egingo baitute, kaleak, espazio publikoak eta bizitarik

1. Proiektu honen partaide den Andrea Ganuzak gomendatua.

gabeko espazio ahantziak berreskuratuko baitituzte: Ibil Bediren musikarekin, Agoizko Kultur Etxeko ataripean, Sutanen dantzekin Altsasuko lortiaiko agertokian, eta Artafarandula kolektiboak Tafallan ekintzen bitartez berpiztuko duen espazioarekin.

Hasierak prozesuan daude, bilaketan, hausnarketan... eta, berriz, amaierak prozesuaren kristaltzean. Musika, bertsoak, pinturak, eskulturak, instalazioak, zinema... prozesuen gauzatze pluralak dira. Soinuak, mugimenduak, testurak, gorputzak...

Prozesuan al dago erantzuna?

Artistek garatzen dituzten prozesuen inguruko gogoeta eginez, Natalia Ginzburgen *Nire lanbidea* testuak harrapatzen nau: "Gure bizitzako egunak eta gauzak, behatzen ditugun bizitzak eta egunak, irakurketak, irudiak, pentsamenduak eta solasaldiak: horretaz guztiaz elikatzen da eta gure barruan hazten da". Alegia, prozesua, konnotazio erromantikoetatik urrun, artistaren lanbidearen parte da.

Mostra honek objektuen oroimena hartzen du bere erroetan.

Baina, ez da horretan mugatzen, espazioa, prozesuak, eta testu-inguruak aintzat harturik, arte-hierarkien hausturak bultzatu nahi baditu ere, adierazpenak elkarrekin ehunduz, bertan murgilduz eta arrakalak bistarazten dituen atmosferetan mezuak integraturik. Alegia, bateratze heterogeneo bat gauzatuko da.

Oroitzapen bilakatuko den elkarrizketa nahi dut sortu.

Iraganaren eta orainaren arteko lotura sortuko lukeen elkarrizketa, oroimena artefaktu bizidun bihurtuko zukeena. Maria Rosónek *Madres fantasma* testuan esandakoak blaitzen nau, "memoria feminista kolektibitate hori eraikitzen du, bakarrik ez gaudela azpimarratuz, zaugarriak garen arren, boteretsu bihurtzen gaituen transmisio espektrala baitauegu".

Eta, transmisio horrek, zehazki, memoria kolektibo eta indibiduala garatzeko aukera emango digun markora eramango gaitu.

... es un recuerdo, un objeto, el registro de un afecto, de un tacto, de un algo. Se trata de una experiencia materializada en un objeto que dejó de ser para resignificarse. ¿Podemos habitar un espacio sin vivirlo? ¿Usarlo como lugar de paso implica habitarlo?

**X hau** dimentsio afektiboa da, nolabait, oroimen individual eta, aldi berean, kolektiboak erakartzeko saiakera egiten duena. Topagunea izatea gustatuko litzaidake, partekatutako emozioen berreraikitze kognitiboan eragina izango lukeen sentimendu partekatua; edo ez.

Y es que, tal como Uxue Alberdi dice en *Kontrako eztarritik*, “la bertsolari es el cuerpo, y tiene el cuerpo como primera atalaya”.

# ¿EN QUÉ SE BASA EL HABITAR?

Iraganaren eta orainaren arteko lotura sortuko lukeen elkarrizketa, oroimena artefaktu bizidun bihurtuko zukeena. Maria Rosónek *Madres fantasma* testuan esandakoak blaitzen nau, “memoria feministak kolektibitate hori erakitzen du, bakarrik ez gaudela azpimarratuz, zaugarriak garen arren, boteretsu bihurtzen gaituen transmisio espektrala baitauekagu”. Eta, zehazki, transmisio horrek, memoria kolektibo eta indibiduala garatzeko aukera emango digun markora eramango gaitu.

Bada, haiek ez dira X honi lotutako talaia bakarrak, baina bai barnean egongo direnak.

**JONE RUBIO MAZKIARAN**

## ARTEFACTOS

... es un recuerdo, un objeto, el registro de un afecto, de un tacto, de un algo. Se trata de una experiencia materializada en un objeto que dejó de ser para resignificarse. ¿Podemos habitar un espacio sin vivirlo? ¿Usarlo como lugar de paso implica habitarlo? ¿En qué se basa el habitar?

Busco compulsivamente información sobre el tema, un tema que me obsesiona, y en una de estas doy con *Ontología del habitar* de Angélica Crespo:

“La facultad de ‘habitar’, se relaciona directamente con el concepto de ‘carne’ como ‘cuerpo vivo’. A partir de esto se le da una gran importancia al cuerpo, no de un ‘sujeto’, sino al de una ‘persona’ cargada no de dimensiones racionales y subjetivas, sino de dimensiones y expectativas vitales y corporales. De ahí la ‘presencia de la carne’ como una condición fundamental para poder llenarnos de actos (...) la corporeidad misma nos convoca a estar abiertas y atentas al acontecimiento del sentido a ser prácticamente omnipresentes para poder así recibir de las cosas sus texturas, sus colores, sus formas, sus olores y ‘complementarlas’ con el sentido de su propia experiencia”.

Este habitar se transforma en experiencias, una experiencia construida, que como Donna Haraway relata, es movilizada como un objeto de conocimiento, un objeto de acción. Las experiencias se convierten en memoria, y la memoria en objeto, en emoción, en movimiento, en registro de algo que fue. De algo que nos representa, pero que no se representa, que no se quiere representar. ¿Un registro de una disidencia? De quienes disidieron de un lugar, de un hogar, de un espacio, de un cuerpo, de un afecto, para crear lugar, hogar, espacio, cuerpo, afecto.

Esta cxsá se transforma en una dimensión afectiva que apela al recuerdo individual, y a su vez colectivo. Me gustaría que fuera espacio de encuentro, un sentimiento compartido que influyera en la rehabilitación cognitiva de emociones compartidas, o no. Pero que sí infiriera en una reflexión, en una búsqueda y encuentro que nos lleve a un entendimiento, a un afecto, a una empatía.

## **Esta cxsa no se habita.../X hau ez da okupatzen...**

Sumergida en la búsqueda de respuestas leo *La política cultural de las emociones* de Sara Ahmed, y dice lo siguiente:

“La solidaridad no significa que nuestras luchas sean las mismas, por eso implica compromiso y trabajo. El reconocimiento de que, aunque no tengamos los mismos sentimientos, o las mismas vidas, o los mismos cuerpos, vivimos en un entorno común.”

Y es así como entiendo que esta cxsa no es un espacio neutro. La neutralidad es comodidad. Y esta cxsa no es cómoda, implica una reflexión, un posicionamiento, un movimiento. Esta cxsa está situada en un contexto determinado, con su historia, con sus recuerdos, con sus objetos, sus cuerpos y sus memorias. Algunos de ellos nos invitan a reflexionar sobre qué es lo que ha pasado hasta ahora, sobre donde están los testimonios silenciados, sin voz, sin boca y sin movimiento. Desvanecidos sin que tengamos un mínimo recuerdo de su existencia, o aquellos que están a punto de disiparse, o los que tienen miedo a tener voz.

Inspirada por el texto *Tiranía cultural* de Gloria Anzaldúa<sup>1</sup>, recompongo sus palabras y deduzco que es en la soledad de esos sonidos silenciados donde florece nuestra rebeldía. En este espacio inhabitado el cuerpo de las artistas se transforma en registro de su movimiento, una cristalización de sus cuerpos materializada en una expresión artística. El cuerpo, el movimiento lo creáis vosotrxs cuando circuléis entre las piezas de Celia. En el momento en el que observéis los trazos de Mireya. Cuando os sentéis en las sillas que en un pasado cercano nuestros cuerpos ocuparon y tratéis de buscar respuestas a las reflexiones que Aizpea os lanza. Vuestros cuerpos se erizarán en el momento en el que se sitúen frente a los carteles de Andrea. Y, trasladados a la instalación de Ione, deducirán que en la adversidad siempre, hay grietas, hay alternativas.

Ese movimiento será transformado por Idoia, Irati, Alazne y Saray quienes como visitantes registren su experiencia con la inmediatez y efimeridad de sus bertsos. Y es que, tal como Uxue Alberdi dice en *Kontrako eztarritik*, “la bertsolari es el cuerpo, y tiene el cuerpo como primera atalaya”. Esta no es la única atalaya ligada a esta cxsa,

1. Texto recomendado por Andrea Ganuza, compañera del proyecto.



pero sí que será la única que la habitará. Ya que, el proyecto saldrá de las salas de exposiciones y empapará, okupará, las calles, así como lugares inhabitados que recuperarán su vida. Con Ibil Bedi a través de su música en el pórtico del Centro Cultural de Aoiz, Sutan en el escenario de Iortia en Altsasu y Artafarándula en una antigua tienda revivida por el colectivo en Tafalla.

Todo parte de un proceso de búsqueda, de reflexión, de inflexión... que finalmente se materializa en una creación. La música, los bertosos, la pintura, la escultura, la instalación, el cine... son resultados de un proceso similar. Un proceso, que finalmente se cristaliza en un soporte, un sonido, un movimiento o un cuerpo.

La respuesta está en el proceso.

Reflexionando en torno al proceso en el que se ven sumergidas todas las artistas, encuentro la respuesta en el texto *Mi oficio* de Natalia Ginzburg: "los días y las cosas de nuestra vida, los días y las cosas de la vida de los demás a que nosotros asistimos, lecturas, imágenes, pensamientos y conversaciones: se alimenta de todo esto y crece en nuestro interior". Y es que, el proceso, lejos de connotaciones románticas, es parte del oficio de artista.

Esta cxsxa hace referencia a la memoria de los objetos, a la que se traslada en el espacio, y en parte, a la que reside en nuestra existencia. Y, en la misma línea, invita a quebrar las jerarquías artísticas, integrándolas en una misma atmósfera donde las expresiones se tejen, se sumergen y quiebran entre ellas.

Quiero crear un diálogo que se transforme en recuerdo.

Un diálogo que genera un nexo entre el pasado y el ahora, que hace de la memoria algo vivo. Demostrando que, como María Rosón destaca en *Madres fantasma*, 'la memoria feminista construye esa colectividad e incide en que no estamos solas, que a pesar de nuestra vulnerabilidad contamos con un legado fantasmagórico que nos vuelve poderosas'. Y, concretamente, es esta transmisión la que 'nos remite a la existencia de un marco para hacer memoria a nivel individual y colectivo'.







**IONE ATENEA**

## LA CASA DE L'ARTISTA

**Zer gertatuko litzateke, zoriz, ezezagun batzuen gauzak oinordetuko bagenitu?**

Zer gertatuko litzateke, zoriz, ezezagun batzuen gauzak oinordetuko bagenitu? *La casa de l'artista* Ione Ateneak García anai-arrebeekin izandako topaketaren aztarnak biltzen dituen obra instalatiboa da, zeinetatik *Los caballos mueren al amanecer* filma sortu zen.

“Esperimentu bat egin nahi duzu?” utzi zuen idatzirik zendutako Antonio García: “Eseri zaitetz laukitxoan aurrean, bost guztira, eta idatzi ezazu hiru pertsonaiei buruzko kontakizun bat, originala, noski.” Ionek proposamena onartu zuen. Eta, filmean kontaktzen du nola, García familiaren etxean bizitzera sartzen denean, hiru anai-arreben bizitzak bertan utzitako objektuen zirrikietatik ikustarazten diren.

Antonio komiki-marrazkilaria izan zen. Rosita, berriz, opera-kantaria eta piano-jolea.

Juanito anaiarekin batera, diktadura frankistaren errealtate grisetik ihes egiteko sorkuntza espazio bihurtu zuten etxea. Urte horien ostean, bizikide berriekin, etxea bizitza beste modu batekoa izan daitekeela baieztatzen duen espazioa izaten jarraitzen du.

Lan zinematografikoa instalazio honetan deskonposatzen da. Filma egiteko erabiliak izan diren materialak, erakusketa-gunean daude, haren sekuentziekin batera. Etxean aurkitutako objektuak aretoan barneratzen denaren eskuera jartzen dira, gure iragan hurbilaren azterketa proposatuz. Rosita, Antonio eta Juanitoren -objektu, — irudi eta soinu — dokumentuak berreskuratzearen bidez, denbora eta espazioak bideberritzen dira, film luzeak zeharkatzen duen gai berari buruz pentsatzen dugun bitartean:

**Zer egin hildakoen gauzekin?**



## LA CASA DE L'ARTISTA

**¿Qué pasaría si por azar heredáramos las cosas de unos desconocidos?**

*La casa de l'artista* es una obra instalativa que evoca el encuentro de Ione Atenea con los difuntos hermanos García, del que surgió la película *Los caballos mueren al amanecer*.

"¿Quieres hacer un experimento?" Antonio García dejó escrito entre sus cosas "Siéntate frente a unas cuartillas, cinco en total, y escribe un relato con tres personajes, y que sea original por supuesto." Ione acepta la propuesta y en la película cuenta la historia de cómo cuando entró a vivir en la casa de la familia García, encontró que las vidas de los tres hermanos seguían latentes en los objetos que dejaron.

Antonio fue dibujante de cómics y Rosita cantante de ópera y pianista. Junto con su hermano Juanito, convirtieron su casa en un espacio de creación y ficción a través del cual escapar de la realidad gris de la dictadura franquista.

Años más tarde, con sus nuevos habitantes, la casa sigue siendo un lugar donde la vida puede ser de otra manera.

La obra cinematográfica se deconstruye en esta instalación. Los materiales utilizados para confeccionar la película se relacionan en el espacio expositivo con secuencias de la misma.

Los objetos encontrados en la casa se ponen a disposición de quien visita la sala, proponiendo una revisión de nuestro pasado reciente. Un tiempo y un espacio cobran vida por medio de la recuperación de objetos, imágenes y documentos sonoros de Rosita, Antonio y Juanito, mientras se nos confronta con la misma cuestión que atraviesa el largometraje:

**¿Qué hacer con las pertenencias de los muertos?**

**Esta cxsa no se habita.../X hau ez da okupatzen...**









Baby Girl





2021eko otsailaren 24an, EZ DA EGUZKI HAU NIRETZAT EZ DA NIRETZAT EGUZKI HAU erakusketaren harira, galtzeko edo hausteko beldur zen zerbait lagatzeko eskatu nion Alba de la Portillari. Honek, dituen objektuen artean bakarra behar zuen izan, berak kopiarik izan gabe. Burbuiladun plastikotan bilduriko bi liburu bidali zizkidan gutun-azal baten barruan. 2022ko irailaren 9an itzultzeko geratu ginen.

**AIZPEA DE ATXA**

A: Gogoratzeut emaila beandu bidali zenidala ta ni dagoeneko oheratua nintzela. Baina mezu bat jaso nuen bapatean ta irakurri in nuen. Ta bertan esaten zenuen galtzea edo apurtzea beldurra ematen zian zerbait bidali behar nizula. Eta akordatzen naiz asko larritu nintzela. Beno, ez larritu, baina urduritu in nintzen. Ta gogoratzet gau hartan oso beandu lokartu nintzela... Ezin nuelako... Askokostatu zitzaidan.

Zer bidal niezazukeen pentsatzen pasa nuen gau osoa ta hurrengo egunetan, ere, berdin... Kontua da, zuk mezuan esaten zenuela «erabiltzen duzun zerbait edo zure egunerokotasunean behar duzun zerbait» Edo antzeko zeoze, eztakit, eztut ondo gogoratzen... Baina bidaltzean, bere hutsunea sentituko nuen zerbait. Orduan, badaude egunero erabiltzen ditudan gauzak, ez... Eztirenak etxeko giltza bezalakoak... Bua, hori bidaliz gero bai ezingo nukeela ize in... Baina, azkenean... Liburuak bidaltzea pentsatu nuenean... Ez berreskuratzea kezkatzen ninduen. Ze... Bokazio profesionalana ez... Hori eztut hainbeste maite edo... Eztut hain nire sentitzen... Azken finean liburu-denda batean topatu nuen ta listo. Baina liburu horretatik gustatu zitzaidana, aurkitu nuenean, irakurri ezin zela zen. Eta zaharra zela. Beno, zaharra... 60 urte ditu. Jakin-mina sortzen dit eta gustuko dut, baina elitzateke bestea galtzea bezalakoak izango. Elitzateke "kaka, eztut berreskuratuko" izango, ez? Bakizu. Erakartzen nauen gauza bakarra orrialdeen kontua da, berezitasun hori. Baina bestea, zementuen liburuak... Kriston pena emateit galtzeak... Ze hori... Beste gauza bat da niretzat. Objektu asko daude munduan beste pertsona batzuenak direnak, baina... Liburu honen jabea... Liburu hau erabilgarri izan zitzaien pertsona ezagutu in nuen ta asko gustatzen zait pentsatzea... Hau ukitzean ta berak in zituen... Edo berak in ahal izan zituen keinu berdinak iteko aukera izatean, gure gorputzak ukitu... Edo harremanetan jartzen direla. Hori da liburuak. Liburuak irakurtzeko da. Liburuak orriz dago osatua ta irakurtzeko... Liburuak bere funtzioa betetzeko, orri hoiek pasatu behar dituzu. Orduan... Liburu horretan keinu hori errepikatzeak besteekin lotzen zaitu.

(...)

Ta eztakit. Hori.

## Esta cxsá no se habita.../X hau ez da okupatzen...

Ta gaizki bildua nuela esan zenianean eta nire erruz objektua kalte zitekeela esan zenianean, asko kezkatu nintzen. Ze... Berez tontakeria bat da baina... Nik... Bidali nizkizunean... Zerbait egingo zenienaren beldurrez bidali nizkizun. Ta... Ta zuk hori esatean, jo ba pentsatu nuen "ba ni enaiz liburuak zaintzeko gai izan", ez? Gainera eninduzun abisatu jasoak zenituen ala ez ta mezu batez jakin nuen... Beno, hori ere ez, ni sartu behar nuen web-orri batean ta bertan ikusi. Horrela... Horrela jakin nuen. Ta gogoratzeut teorikoki iritsi behar zitzaizuna baino egun bat beranduago begiratu nuela ta... Berez jartzen zuen jasoá zenuela baina zuk etzenian mezurik bidali ta horregatik pentsatu nuen "ba galdu dute", "Correosen galdu dute". Ta asko urduritu nintzen. Eztakit... Denbora horretan... Zuri bidali ta jaso artean, ba... behin baino gehiagotan pentsatu nuen "ez ditut berriro izango". Eztakit... Norbaiti pelikula bat uzten diozunean bezala. Badakizu, ez? Zuk pelikula bat uzten diozu norbaiti itzultzeko baldintzarekin, "utziko dizut itzultzen badidazu", "ikusi ta itzuli". Baina batzutan, gehienetan, eztatorrela bueltan... Ba beste pertsonak alde in behar izan duelako... Edo oso lanpetuta dabilelako beti... Edo berak geratzea posible duenean zuk ezin duzu geratu... Eta, ba... "Elkar ikusten dugunean itzuliko didazu" horretan geratzen da bien arteko harremana. Ta "elkar ikusten dugunean" hori ezta inoiz gertatzen. Ta seguraski berriro izango ez duzula konturatzen zarenean, denbora behar duzu... Barneratzeko. Hori... Hori gertatu zitzaidan egun haie-tan. Ta gogoratzen saiatzen nintzen. Zer irakurria nuen ta saiatzen nintzen pentsatzen zer geratua zitzaidan barruan... Liburu hartatik. Zementuenean batez ere. Esaldiren bat edo irudiren bat. Zementuen liburutik gehien gustatzen zitzaidana irudiak ziren. Irudiak eta apun-teak. Bakizu zeintzuk, ez?

Oharren azpiko apunteak.



El 24 de febrero de 2021, a raíz de la exposición NO ES PARA MÍ ESTE SOL, pedí a Alba de la Portilla que me prestara algo que tuviera miedo a perder e incluso a romperse. Objeto único entre los que posee, sin poder ella tener una copia.  
Me envió dos libros envueltos en plástico de burbujas dentro de un sobre.  
El 9 de septiembre quedamos para devolvérselos.

**AIZPEA DE ATXA**

## **Esta cxsa no se habita.../X hau ez da okupatzen...**

A: Recuerdo que el mensaje por email lo mandaste bastante tarde y yo ya me había metido a la cama. Derepente, ví que había recibido un mensaje, lo miré, y era que te tenía que mandar algo que me diese miedo a perder o que se rompiese o tal. Y me acuerdo que me agobié mogollón. No me agobié pero era como "bua". Me costó... Recuerdo que conseguí dormirme muy tarde. No podía.

Y estuve pensando toda la noche qué era lo que te podía mandar. Y los días siguientes también porque no... La cosa era que... También en el enunciado que ponías «algo que lo utilizas o lo sueles necesitar habitualmente»... No me acuerdo exactamente. Pero que si te lo mandaba iba a sentir su ausencia. Entonces hay cosas que utilizo que no... No son una llave para abrir la puerta de casa todos los días... Eso sí que si te lo hubiera mandado me hubiese cagau. Pero, cuando decidí ya enviarte al final los... lo que me preocupaba era no volver a recuperarlos porque el libro, el de la vocación profesional, ese no le tengo tanto cariño o tanto arraigo porque lo encontré en una librería y ya está ¿no? Pero lo que me gustó de ese libro, como te dije, era que no se podía leer. Y el hecho también de que era tan antiguo. Bueno, tan antiguo... Tiene 60 años. Me daba curiosidad pero no era como un... Como un... "Joder, no lo voy a volver a tener" ¿sabes? Era... Lo único que me atrae de él es la peculiaridad que tiene de lo de las hojas, nada más. Mientras que el otro del cemento... No sé. Me... Me da mucha más pena. Es como... El hecho de que puede haber muchos objetos que hubiesen pertenecido a otras personas, pero este sí que conocí a la persona que lo tenía o a la persona a la que le sirvió este libro y... Lo que me da más curiosidad es... El tema de... De poder tocar algo y hacer el mismo gesto que puede que hubiese hecho la otra persona. Y eso es el libro ¿sabes? El libro es para leer. El libro se compone de unas hojas que las tienes que... Las tienes que ir pasando. Entonces... Poder repetir ese gesto en ese libro es como... Te conecta de alguna forma a la otra persona.

(...)

No sé. Y eso.




Y cuando me dijiste que lo había envuelto mal, que eso podía dañar al objeto, me agobié bastante. A ver, es una chorrada, pero es como... El tema es que yo te lo mandé teniendo miedo de si le podías hacer algo, pero al mismo tiempo al decirme tú eso, es como "bua, pues yo no lo he sabido cuidar" al enviártelo ¿sabes? Y también, al no responderme de que te había llegado, que solamente lo recibí por un, bueno, no por un mensaje, me tenía que meter por una página para mirar el código de si había llegau y tal... De esa forma me enteré que lo habías recibido. Y lo miré un día después del que teóricamente te iba a llegar. Y como no había recibido mensaje, no sé... No sé... Me agobié otra vez por si acaso se había perdido. Y... Durante ese tiempo, enviártelo y recibirlo también me estuve haciendo la idea de... "no lo voy a tener" ¿sabes? No sé si te ha pasau de prestar una película a alguien que en ese momento se lo das con la premisa de que te lo devuelva ¿no? Tipo... "devuélvemelo". "Ves la película y me la devuelves". Pero... A mí me ha pasado otras veces que, por temas de que, pues que la otra persona se ha tenido que ir, pues se ha llevau la película. Y el... Y el... Se convierte en "pues cuando nos veamos me lo devuelves". Y ese «cuando nos veamos», no... Igual no es posible nunca. Entonces, pasa un tiempo que te tienes que hacer a la idea de que igual ya no lo vuelves a tener. Eso me paso cuando... Durante esos días. Que era "pues si lo pierden en Correos, pues no lo vuelvo a ver nunca más".

